

LEP 2022-04-06 Negoziazioa: egoera

LEParen negoziazio mahaiak aurrera darrai, eta momentuz, Administrazioa eta sindikatuok hamabostean behin elkartzen jarraitzen dugu. Egiari zor benetako negoziazioari oraindik ez diogu hasiera eman, izan ere, lehenengo urratsa deituko diren lanpostuak eta lanpostu horiei dagozkien prozesu motak identifikatzea da.

Dakizuen moduan, hiru prozesu ezberdin dira ate joka ditugunak: promozioa, merezimendu-lehiaketa eta oposaketa-lehiaketa. Horrela, unibertsitatean daukagun interinitate-maila altua, prozesu bakoitzak bere aldetik eragin ditzakeen mugimenduak eta 20/2021 Legearen zehaztapenak kontuan hartuta, hiru prozesu horiek etxeko langile guztientzako egokiena eta orekatuena den moduan aurrera eramatea da helburua. Prozesua osotasunean hartuta, akaso garrantzia gutxi eman diezaiokegu lanpostuen identifikazioa egiteko pausuari, baina zalantzarik gabe emaitza optimoena lortzeko beharrezkoa da ataza hau doitasunez egitea.

Azken mahai-negoziatzailean **behin-behineko** zifra orokorrak jaso genituen, eta, honakoak izango lirateke:

Alorra	Promozioa	Lehiaketa	Oposaketa-lehiaketa	Guztira
Funtzionarioak	213	508	108	829
Laboralak	-	265	21	286
Guztira	213	773	129	1.115

Dudarik gabe zifra esanguratsuak direla uste dugu **STEILAS**en eta Gerentziak indarrean daukagun araudiari heldu eta kopuru hori ahal den neurrian handitzeko saiakera egin duela eta egiten ari dela ere uste dugu. Pertsona adina lanpostu ez dira deituko hala ere, baina garrantzitsua da prozesuetan parte-hartzeko eskubidea eta aukera guztiok daukagula kontuan hartzea. Alegia, pertsona konkretu batek okupatzen duen lanpostua deitzen ez bada ere, pertsona horrek bai merezimendu lehiaketan eta bai oposaketa-lehiaketan parte hartzeko aukera badauka.


Deituko diren lanpostuen iragarpena jasoko duen akordioa, datorren maiatzaren 24an gauzatuko den Gobernu Kontseilura eramango da, eta horrekin, amaiera emango zaio lehen urrats honi.

Bestalde, prozesuen hurrenkera bat eta horiek gauzatzeko balizko epeak ere mahaian jarri zituen Administrazioak.

Prozesua	Urtea
Promozioa	2022
Merezimendu-lehiaketa	2023
Oposaketa-lehiaketa	2024

Horrela 20/2021 Legeak adierazten duen 2024ko abenduko mugarekin beteko genuke alde batetik, eta bestetik, hurrenkera hori erabilita aintzinasun gehien duten pertsonen gehiengoak merezimendu-lehiaketa bidez bere egoera egonkortzea lortuko luke, horrela gainera, aintzinasun gutxiagoko langileek oposaketa-lehiaketa bidez beraien egoera egonkortzeko aukera bat izateari ere bidea ematen zaio.

.../...




Aipatu diren horietaz aparte, funtzionarioen prozesuei dagozkien oinarri orokorren lehen proposamen bat ere helarazi digute jada. Jaso dugun dokumentuak aurreko ikasturtean jada lantzen hasitakoa jasotzen du alde batetik, eta 20/2021 Legeak ezarri dituen berrikuntzak ere barneratzen ditu bestetik. Bada, hori lantzen ari gara momentuan sindikatuak eta itxura guztien arabera Aste Santuko opor ostean horixe izango da mahaiaren lan-lerro nagusia.

Prozesuei loturiko zehaztapenen harira, **STEILAS**ek ondorengo hauek jarri ditu jada mahaiari:

- ◆ Merezimendu-lehiaketa gaingitu ahal izateko minimo bat ezartzea.
- ◆ Prozesuei amaiera egokiagoa emateko, lanpostua eskuratu duten langileek hala adierazten duten kasuetan eta aldaketa posible den heinean campusa aldatzeko aukera ematen duten mekanismoak ahalbidetzea.

Bestalde, prozesuen hurrenkera kontuan hartuta gertatu daitezkeen desplazamenduei behin-behineko irtenbide bat emateko helburuarekin, honakoa defendatuko eta eskatuko ditugu **STEILAS**en:

- ◆ Desplazatuak izan daitezkeen langileentzako birkokapena 2024ko abendua bitartean.

Modu berean, Egonkortasu Akordioak babesturiko langileen birkokapena ere babestuko dugu. 



UPV/EHUko Kontziliazio Gida berria

Gizon eta emakumeen arteko III Berdintasun planaren esparruan, UPV/EHU-ko Kontziliazio Gida onartu da. [Gidari gehitu zaizkion hainbat neurri positibo azpimarratu nahi ditugu:](#)


- **Guraso bakarreko familien** kasuan, seme-alaben zaintzarako ordaindutako baimenen luzapena eta metatzea. Dударik gabe, epaien bitartez eskubide hau lortu duten emakumeen borrokaren emaitza da
- **IRI** arloan, irakaskuntza zein ikerketa merezimenduak ebaluatzeko, **jaiotza, adopzio edo harrera baimenak** kontutan hartzea.
- **Arratsaldez lanaldia zuten langileek ordutegi malgutasunari dagokionez zituzten trabak ezabatu dira**, lan eta familia bizitzaren kontziliazioa ahalbidetzeko.

tzeko.

Jakin badakizuenez, gida hau indarrean dagoen araudiko baimenen bilduma da, soilik familia unitatean oinarritzen direnak. Hortaz, odol edo bikote loturarik ez duten pertsonen arteko zaintza ukatu egiten da. **STEILAS**ek uste du UPV/EHUK baimen hauek ahaidetasun edo bikote loturatik haratago zabaltzeko paregabeko aukera galdu duela. Planteatu ditugun beste aldarrikapen batzuen artean, [hemen kontsultatu ditzakezunak](#), dolurako 20 eguneko baimena ere ez da onartu.

Bizitza pertsonala eta lanaren arteko kontziliazioari begira, **STEILAS**en apustua **lanaldiaren malgutasunari** dago lotuta: sarrera eta irteerako ordutegi malguak, urrutiko lana burutu ahal izateko ordu poltsak (gutxienez urteko lanaldiko %10ekoak) eta, aztarna ekologikoa murriztu eta kontziliazioa errazteko formula

.../...




UPV/EHUko Kontziliazio Gida berria

gisa, tele-lanari loturiko lanpostuak handitzea. Finean, jardunaldi murrizketei loturiko soldata murrizketak ekiditea da gure helburua, **genero soldata arrakala** ekiditeko asmoz.

Alabaina, UPV/EHUK azaleko aldaketak baino ez ditu burutu (adibidez, sarrera eta irteerako malgutasuna izan ahal izateko seme-alaben adina 12 urtetik 14 urtera igotzea), eztabaidatik urrutiko lana eta tele-lanari loturiko proposamenak ezabatuz eta beste komisio batean, beste egun batean, akaso beste urte batean lantzerantz konprometituz.

STEILASek zaintza lanaren garrantzia ikustarazteko borrokan jarraituko du; ikasi, ikertu,


administrazio eta gestio lanak burutu edo irakasteko asmoz egunero unibertsitatera etortzea ahalbidetzen digun zaintza lana.

Zaintza birpentsatu eta birbanatzeko ordua da, **ardura soziala eta auzi politikoa** baita. Bistakoa da eremu pribatuan gizonezkoek erreproduzio lanaren erdia euren gain hartu behar dutela; halere, lan eremuan instituzioek emakumei karrera akademiko eta administratiboan hasi eta mantentzeko tresnak eskaini behar dituzte. Une honetan, Kontziliazio Gida honen bitartez, UPV/EHUn apustua kontserbadorea izan da eta ez da langileen beharrak asetzeko nahikoa. 


AZPko 2022 Prestakuntza Plana


Hilaren 24an, Prestakuntza Kabineteak 2022rako AZPko Prestakuntza Plana aurkeztu zuen. Aurreikusitako prestakuntza-ekintzak ohiko esparruetan kokatzen dira. **STEILAS**ek mahai gainean jarri zuen lanpostuan hastean prestakuntza-ekintzak egiteko beharra, pertsona askok transmititzen baitigute babesgabetasun-sentsazioa UPV/EHUn lanean hasten direnean edo lanpostuz aldatzen direnean.

STEILASen uste dugu lanpostu berri batean hasten den pertsonari lagundu behar zaiola, eta hori ez dela lankideen borondate onaren araberakoa izan behar. Etorkizuneko LEPak pertsona askok lanpostuz aldatzea ekarriko du, eta horrek are gehiago nabarmenduko du premia hori. Horregatik, espero dugu administrazioak kontuan hartzea eta lanpostuan sartzeko prestakuntza-protokolo bat ezartzea.

Bestalde, oso positiboki baloratzen dugu sexu-aniztasunari eta genero berdintasunari buruzko prestakuntza izatea, eta, aldi berean, aniztasunaren inguruko sentsibilizazio-ikastaroak zabaltzeko beharra planteatzen dugu, arraza-aniztasunaren eta hainbat gaitasunen ikuspegiak txertatuz. 

Soldata igoera

Apirilaren 4an Gizarte-kontseiluak 460,6 milioi euroko aurrekontua onartu *zuen* UPV/EHUrako. 2022koa, *aurreko ikasturtekoa* baino % 5,32 handiagoa da. Horietatik 354,3 milioi euro langileen gastuetara (I. kapitulua), aurrekontu osoaren % 76,91 eta 2021an baino % 6,8 gehiago. Zifra horietan, %2ko soldata igoera jasota dago eta maiatzeko nominan hasiko gara jasotzen. 



Joan Subirats Unibertsitate ministroaren bisita

Joan Subirats Unibertsitate ministroak eta Marta Cruells kabineteko zuzendariak UPV/EHU bisitatu zuten martxoaren 16an. **STEILAS**eko zenbait ordezkariak AZP, IRI eta ikasleen ordezkariarekin izandako bileran parte hartu genuen.



Argazkia: UPV/EHU.

AZPko ordezkariak kezkatuta agertu ginen AZP/IRI ratioa txikia delako eta kolektiboaren behin-behinekotasun-tasa izugarria delako, eta azpimarratu zuten hurrengo EPE prozesuak bitarteko eta aldi baterako langileak egonkortzeko balio behar duela. Era berean, azpikontratazio-arriskuez ohartarazi genuen, eta, garbiketako langileen kasua jarri genuen daukagun prekarietatearen adibide moduan. eta garbiketako langileen kasuan dugun prekarietatearen adibidea jarri genuen. UPV/EHUren finantzaketa eskasa ere salatu genuen; Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoaren aldeko apustu irmoa egin ez, eta aldi berean gainera, Euneiz bezalako ekimen pribatuei alfonbra gorria jartzea, alegia.

Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa (LOSU) egungo LOU (Unibertsitateen Lege Organikoa) ordezkari duen proiektuari dagokionez, ministroak adierazi zuen 2023ko udaberrian izapidetzea eta onartzea espero dutela. Oraindik ez dakigu proiektuaren behin betiko bertsioa, baina ministro berriak aurreratu zuen funtsean Manuel Castells aurreko ministroak garatutako testuan oinarrituko dela. Ezagutzen genuen Castellsen testu hartatik positiboki baloratu genituen zioen azalpenean jasotzen diren neurri feministak. **Soldata-arrakala identifikatu eta horri aurre egiteko, nabarmentzekoa da langile guztien ordainsari-erregistroaren eskakizuna**, adibidez. AZPen eremuan, menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko langile askok beren lanaldia murriztu behar izaten dute. Horrek dakarren soldata murrizketarekin jakina. Ondorioz, Gizarte Segurantzako kotizazioa murrizten zaie, baita pentsioa ere. Halako murrizpenak emakumeek eskatzen dituzte gehinetan, beraz, praktikan emakumeak dira zaintza-lanak egiteagatik pobretzen direnak.


Bestalde, Unibertsitate Ministerioak, ANECAk eta CRUEk argitaratutako «Genero-soldata-arrakala Espainiako unibertsitate publikoetan» txostenak generoko soldata-arrakala dagoela adierazten du. Arrakala horrek irakasleek karrera akademikoan sartzeko, egonkortzeko eta mailaz igotzeko dituzten barneko eta kanpoko oztopoak agerian uzten ditu.

STEILASen erakunde publikoek egoera horri buelta emateko ardura izan dezatela eskatzen dugu; AZPko lanaldiak malgutzeko formulak aplikatzea premiazkoa da. Adibidez ordu jakin batzuetan etxetik lan eginez (urrutiko lana) lanaldi-murrizketa kopurua gutxiagotuko genuke, eta ondorioz hein batean soldata-arrakala sahistuko genuke. Irakasle eta ikertzaileei dagokienez, genero-oztoporik gabeko karrera akademikoa diseinatu behar da, eta berdintasuna helburu duten politikak ezarri. Jakina, ez da ahaztu behar neurri horiek zaintza sistema publiko sendo baten barruan kokatu behar direla, zaintza horietako gehienak familia-eremutik kanpo egiten direla ziurtatuko duena; bestela, ikusezin izaten jarraituko dute, eta gehienak emakumeen gain geratuko dira.

Parekotasunari dagokionez, LOSUk jasotzen du **unibertsitate publikoetako kide anitzeko organoek gizonen eta emakumeen arteko osaera orekatua bermatu beharko dutela**. Gure ustez, planteamendu hori unibertsitate-jardueraren eremu guztietan gauzatu behar da, sindikatu-ordezkaritzan (gaur egun, gehienbat maskulinizatuta dago) eta ikasleen ordezkari-tzan barne.

LOSUren proiektuko ministroak azpimarratu zuen alderdi bat Unibertsitatearen finantzaketa

.../...



hobetzearen aldeko apustua izan zen, eta, beraz, BPGren % 1 lortzeko helburuari eutsiko dio, gaur egun % 0,7 baita.

Gobernantzari dagokionez, Gizarte Kontseiluaren eginkizunak eta osaerak ere kezkatzen gaitu. Gure ustez, Gizarte Kontseiluak benetan islatu beharko luke gure gizartearen aniztasuna eta bizitasuna, eta ez litzateke soilik enpresen eta

alderdi politikoaren interesak nagusi diren kanpo-kontrolerako mekanismo bat.

Beraz, aldaketa azkar eta garrantzitsuak datoz Unibertsitatean, eta, kasu batzuetan, LOSUK jarduera-esparru oso orokorra definitzen du horientzat, eta, beste batzuetan, kortse estuegia da. Beraz, **oso erne egon beharko dugu unibertsitate publiko euskaldun, berdinzale eta feminista baten defentsan.**

Hezkuntza Hitzarmena:

Ez saldu Eskola Publikoa

Pasa den astelehenean, martxoaren 25ean, EAEko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak Hezkuntza Legeko Oinarrien Hitzarmena onartu zuen. Datorren ostegunean, apirilaren 7an, Legebiltzarrak berak emango dio babesa Hitzarmenari eta hortik aurrera hasiko da EAEko Hezkuntza Lege berriaren zehaztapena eta tramitazioa. EAEko lau alderdi nagusien arteko adostasunarekin eta aldeko botoarekin onartu da Hitzarmena eta zalantza gutxi dago etorriko den legeak ere alderdien arteko taimainako babesa lortuko duela.

STEILAS oso kritiko agertu da hasieratik prozesuarekin eta erdietsitako akordioarekin. Prozesuarekin, Hezkuntza Batzordean izandako agerraldi andana itxurakeria izan baita, eta azkenean emandako testuak gehiago baitzuen pasa den udan alderdi eta hezkuntzako aditu batzuen esku artean ibili zen testu erdi adostutik agerraldietan eragileek egindako ekarpenetatik baino. Eta azken aste hauetako negoziaketa eta moldaketetan ere ez direlako jaso Hezkuntzako langileen edota Eskola Publikoko eragileen zehaztapenak eta aldarrikapenak.

Hitzarmenarekin, hitz politetik harago ez delako inongo bermerik jasotzen zehazten diren helburuekiko. Aitzitik, Euskal Hezkuntza Publikoaren Zerbitzuaren baitan sare publikoa eta pribatua parekatzean betikotu egiten delako segregazioa eragiten duen gure Hezkuntza Sistemaren egiturazko dualitatea, orain, gainera, gehiago eta hobeto finantzatzuz sistema pribatua. Sistema publikoak, benetan inklusiboa den horrek, hobe-

tu eta zabaltzeko beharko lituzkeen baliabideak sistema pribatura joango direlako horren ordez, ezertan uzteko arriskuarekin segregazioari aurre egiteko zehaztu den hainbat neurri. Bestek beste, tokiko matrikulazio bulegoak, zeinek azkenean ez baitue ahalmen exekutuiborik izango, eta bakarrik aholkularitza egiteko balioko duten.

Hezkuntzaren eta gelen planifikazio irizpideen gaineko zehaztasunik gabe sistema publikoa berregituratu eta ahultzeko bidean jartzen delako datozen urteetan. Deszentralizazioa eta Zentroen autonomia desregulazio ez bihurtzeko neurririk ez delako zehazten, zentroen arteko desberdintasunak, arrakalak eta lehia aregautzeko arriskuarekin.

Euskarari dagokionean ezagutza-helburua, B2, finkatu delako baina ez helburu hori lortzeko eman beharreko baliabideak eta tresnak. Hezkuntza-errealitatek oso urrun dagoenak soilik sinets dezake hizkuntza-eskakizun bat ezartzeak edozein ikastetxetako ikasleek maila hori lortzea ekarriko duela.

Beraz, **STEILAS**en argi daukagu euskal eskola publikoaren alde borrokatzeko unea dela. Euskal eskola publikoa leku komuna dela uste dugulako, gizarte kohesionatu bat bultzatzea dezakeena. Horregatik borroka egitea merezi du. Apirilaren 7an **STEILAS**ek mobilizazioak deitu ditu, bat egitera gonbidatzen zaitugu.





Gerrarik ez, ez Ukrainan ez inon.

#FreePabloGonzález

EHUK bere web orrialdean "Ukrainarekin" jarri du logoaren alboan. Halako posizionamendu instituzionala ez da batere ohikoa. Ukrainan gertatzen ari dena dramatiko da eta sufritzen ari diren pertsona horiei elkartasuna adieraztea ondo dago. Baina guzti honen aurrean adierazi behar dugu, halaber:


Munduko beste herri askotan ere egoera dramatikoak bizitzen ari direla aspaldidanik. Donbass-en azken urte hauetan 14.000 lagun baino gehiago hil dituzte. Yemen-en hildakoak ia 400.000 izan dira 2014tik hona. Palestinan eta Kurdistanen zapalkuntzak eta heriotzak hamarkadak daramatzate. Kolonbian, duela bost urte bake akordioak sinatu zirenetik 1400 giza eskubideen defendatzaile eta líder sozial akatu dituzte, baita desmobilizatutako 300 gerrilari baino gehiago ere.

Espainiar Estatuak salduta utzitako Saharan ere etengabeak dira hilketak eta errepresioa. Zergatik ez da inoiz haien gaineko halako aipamen publikorik egin EHU? Bigarren mailakoak dira akaso? Ala gobernu batzuek eta hedabide masiboek zabalduzako kanpaina propagandista sinplifikatzaileak izan dira orain Errekoretza EHU ere kokatzera eraman dutenak?

Guri oso kezagarria iruditzen zaigu halako kanpainen sartzeak, besteak beste, Europan eta hemen bertan indartzen ari den belizismoaren aldeko mezuarekin batera baitatoz balizko elkartasun adierazpen hauek. Espainiako Gobernuak eta Europako Batasunak ejerzitoen aurrekontuen hazkundea planteatu dute jada, gerra hotsari arma gehiagorekin erantzunez. Non geratzen dira testuinguru honetan giza eskubideen defentsa eta zapalduen kontrako indarkeriaren aurkako salaketa?

Gogoratu behar dugu, EHUK bere egin dituela garapen jasangarriko helburuak, eta hauek direla gaur egun gure Unibertsitatearen jardun akademiko eta instituzionalaren ardatz. Haien artean, hamaseigarrena da honakoa: bakea, justizia eta instituzio sendoak. Bada, uste dugu, harekiko fideltasunak eskatzen digula EHUtik ere sendo eustea gure printzipio eta irizpideei, Ukrainaren inbasioaren kontra gure ahotsa altxatuz, ez unean hori delako "politikoki zuzena" baizik eta bakearen alde gaudelako, gerra guztien eta giza eskubide urraketa guztien kontra gaudelako, haiek gertatzen diren lekuan gertatzen direla. "Gerrarik ez, ez Ukrainan ez inon. Bakea eta Justizia". Horiek uste dugu izan beharko lirakekeela gure Unibertsitatearen web gunean agertu beharko lirakekeen esaldiak.

Azkenik gure kezka adierazi nahi dugu Pablo Gonzalez kazetari eta EHUKo ikaslearen egoeraren gainean. Hilabete pasa darama preso Polonian, ez du taxuzko defentsa aukerarik izan eta inkomunikatuta dago.

Berriro demostratuta geratu da gerra garaietan askatasuna, egia eta giza eskubideak beti ateratzen direla galtzaile. Ukrainarekiko elkartasunak ez dezala askatasunaren aldeko aldarria ezkutatu. 

Pablo Gonzalez askatu!

#FreePabloGonzalez